

Erf.: 2022. urterako prezio publikoak aldatzea onartzea.
Tx. zk.: 2021/104

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak, idazkari akzidental funtzioetan, jarraian zehazten den gaiari buruz egiten dut honako

TXOSTENA

Gaia: 2022. urterako prezio publikoak aldatzea onartzea.

Espediente tramitatzaileria: Ekonomia Saila

Espediente zenbakia: IDA_ERA_0207 (2021)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua

Aurrekariak

Lehenengoa: 2021eko urriaren 7an, Bermeoko Udalaren Kirol Patronatuko zuzendariak eta Ekonomia, Ondare eta Errenta Saileko teknikariak, Kirol Patronatuko eta Bermeoko Udaleko 2022. urterako prezio publikoak aldatzeko proposamenak egin zituzten hurrenez hurren.

Bigarrena: Espedientean, besteak beste, hurrengoak jaso dira:

- 2022eko urterako prezio publikoak aldatzeko proposamenak
- Kirol zerbitzuen erabileragatik prezio publikoak kobratzeko kudeaketari buruzko arauak
- 2021eko kirol zerbitzuen prezio publikoen eta proposamenaren arteko konparaketa taula.
- Txosten makroekonomikoa.
- Kirol Patronatuko 2022. urterako prezio publikoen txosten-tekniko ekonomikoa.
- Kontu hartzailearen fiskalizazio txostena.

1. Oinarri juridikoak

1.1. Aplikagarria den araudia

- Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Araua



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50008060900R7B8L1X1Q1G4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/11/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2021
10:13:59

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0207
Data: 03/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50008060900R7B8L1X1Q1G4



- Ordezko moduan, administrazio-zuzenbideko xedapen orokorrak eta zuzenbide arrunteko manuak, bereziki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu Araubide Juridikoaren araudia onartzen duena.

1.2. Hausnarketa juridikoa

Prezio publikoei buruz

Prezio publikoak abenduaren 16ko 9/2005 Toki ogasunari buruzko Foru Arauaren 44. artikuluan eta hurrengoetan daude jasota.

Artikulu horien arabera¹ Bermeoko Udalak prezio publikoak ezarri ahal izango ditu zerbitzuak emateagatik eta udal eskumeneko jarduerak egiteagatik.

Prezio publikoen zenbatekoak² emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua bete beharko dute, gutxienez. Hala ere, badira erregela orokor horren salbuespenak. Hain zuzen ere, horrela aholkatzen duten gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoko arazoak daudenean, udalak emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostuaren mugaren azpitik dauden prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu hauetan behar diren zuzkidurak izendatu beharko dira erakundearen aurrekontuetan diferentzia estaltzeko.

Kobrantzaren inguruan³ esan behar da Prezio publikoa ordaintzeko beharra zerbitzua ematen edo jarduera burutzen hasten den unetik sortzen dela, baina toki

¹ Abenduaren 16ko 9/2005 Toki ogasunari buruzko Foru Arauaren 44. artikulua

² Abenduaren 16ko 9/2005 Toki ogasunari buruzko Foru Arauaren 47. artikulua

³ Abenduaren 16ko 9/2005 Toki ogasunari buruzko Foru Arauaren 49. artikulua



erakundeek zenbateko osoa edo zati bat aldeztu aurretik gordailutzea eskatu ahal izango dutela.

Jarraitu beharreko prozedurari buruz

Jarraitu beharreko prozeduraren inguruan legeak ez diosku Ordenantza fiskal, ordenantza orokor edo testu arautzailearen tresna erabili behar den. Horregatik, Auzitegi Gorenaren irizpidea jarraituz (2000. Urteko apirilaren 14ko epaia), prezio publikoak aldatzeko edo onartzeko prozedura berezi bat jarraituko da, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 47.artikuluarekin bat. Hau da, ez zaio aplikatuko ordenantza fiskalen, ezta ordenantza orokorren prozedura. Izan ere, irizpide hori jarraitu zen 2017ko azaroaren 29an Osoko Bilkurak onartu zuenean "Udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak eskaintzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dauzan testu erregulatzailerak".

Prezio publikoak testu arautzailearen bitartez arautzeko irizpide hori jarraitzen bada ere, komeni da prezio publikoei publizitatea ematea. Izan ere, izaera orokorreko ekintza administratibo baten aurrean gaude eta hartzaileak ugariak eta zehaztu ezinak dira. Hori guztia urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoan Prozedura Administratibo Erkidearekin 45.1.a artikularekin bat etorrira.

Laburbilduz, prezio publikoak aldatzeko hurrengo prozedura jarraituko da:

1. Zerbitzuen kostuen azterketa tekniko-ekonomikoa egitea komeni da.
2. Aurretiazko fiskalizazio mugatuak kontrakoa esan ezean, kontuhartzaileak txostena egingo du, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bateginaren 214. artikularen eta abenduaren 2ko 10/2003 Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 67. artikularen arabera.
3. Proposamena bideratuta Informazio Batzordearen irizpena beharko da.
4. Tokiko Gobernu Batzarrak onarpena emango du, gehiengo soilez.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50008060900R7B8L1X1Q1G4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/11/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2021
10:13:59

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0207
Data: 03/09/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50008060900R7B8L1X1Q1G4



5. Erabakiaren publizitatea emango da, gutxienez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa). Gainera, probintziako islada handiko egunkari batean argitaratu daiteke.

Eskumenari buruz⁴

Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurari dagokio prezio publikoak ezarri edo aldatzea; hala ere, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritz, Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzeko ahalmena izango du.

Eta gure kasuan 2017ko azaroaren 29ko Osoko Bilkuran eskuordetza hori eginda dago, prezio publikoen testu arautzailea onartu zenean. Dena den, horrek ez du kentzen prezio publikoak Informazio Batzordean diktaminatu behar izana Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi aurretik.⁵

Udal patronatuaren kasurako, Udalak bere erakunde autonomiadunai egotzi ahal dio erakundeak beren kargura dituen zerbitzuei dagozkien prezio publikoak finkatzeko eskumena, baldin eta prezio publiko horiek Bermeoko Udalak berak ezarritakoak badira. Ezin izango dute hori egin prezioek kostua betetzen ez dutenean.

Erakunde autonomiadunak proposamenaren eta prezio publikoek zerbitzuaren kostua betetzen dutela erakusten duen ekonomi egoeraren kopia bidaliko dio Bermeoko Udalari.

2. Ondorioa

Hori guztia kontuan hartuz, **aldeko txostena** egiten zaio 2022. urterako prezio publikoak aldatzeko proposamenari.

Ondorengo pasuetarako txosten honetan ezarritakoa kontuan izan beharko da. Besteak beste, Informazio Batzordeak diktaminatzeko betebeharra, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakia hartu orduko.

⁴ Abenduaren 16ko 9/2005 Toki ogasunari buruzko Foru Arauaren 50. artikulua

⁵ Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 113. artikulua zera dio: *e) En los casos en que la Comisión de Gobierno ejerza competencias delegadas por el Pleno, será preceptivo el previo informe de la Comisión Informativa correspondiente*



Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalterik gabe.

Bermeon, 2021eko azaroaren 5ean

Karmele Muñoa Arrigain
Idazkaritzako AOT



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E50008060900R7B8L1X1Q1G4

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 05/11/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/11/2021
10:13:59

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0207

Fecha: 03/09/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E50008060900R7B8L1X1Q1G4

